

**2/2015 akta**

**OSATEK, S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN  
AKTA, 2015EKO UZTAILAREN 3KO BILERA.**

Presidenteak deituta, eratu da Administrazio Kontseilua, Gasteizko Donostia kaleko Lakua II eraikinaren 20. aretoan, 2015eko uztailaren 3ko 12:00etan, ondoren adieraziko den asistentziarekin eta gai-zerrendarekin:

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA**

Guillermo Viñegra García jn.

**KIDEAK**

Pedro Hernando Arranz jn.

Ignacio J. Berraondo Zabalegui jn.

Antonio Arraiza Armendáriz jn.

Bilerara bertaratu dira, halaber, hitzarekin baina botorik gabe, zuzendari gerente Enrique Gutiérrez jn. eta zuzendari ekonomiko finantzario Jesús Escauriaza jn.

Ezinbestean ezin dutela etorri jakinarazi dute Fernando Aguirre De Miguel jaunak, Susana López Altuna andreak eta Jon Etxeberria Cruz jaunak.

Susana López Altuna idazkaria bertaratu ez denez gero, eta, sozietatearen estatutuen 13.4. artikulua araber, idazkari postua hutsik dagoenean edo idazkaria bertarutzen ez denean, gaixorik dagoenean edo eragozpen legitimoagatik postua bete ezin duenean, kontseilaririk gazteenak ordeztuko duenez gero, kasu honetan Ignacio J. Berraondo Zabalegui jaunak hartuko du kargua.

**GAI ZERRENDA**

- 1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.**
- 2. 2015eko inbertsioak**
- 3. Galde-eskeak.**

### **1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.**

Aurreko bilerako akta irakurri eta onartu da.

### **2. 2015eko inbertsioak**

Administrazio Kontseiluak onartu du dagokion prozeduraren bidez erostea Galdakaoko Ospitaleko Osatek zentrorako erresonantzia magnetikoko tresneria eta Urdulizko Ospitale berrian kokatu beharreko erresonantzia magnetikoko tresneria, betiere kontratazioko barne-jarraibideen arabera eta Sozietate Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren arabera.

### **3.- Galde-eskeak.**

Aztertu beharreko beste gairik ezean, Kontseiluaren bilera amaitutzat jo da egun bereko 14:00etan.



IDAZKARIA

Sin.: Ignacio J. Berraondo Zabalegui



PRESIDENTEA

Sin.: Guillermo Viñegra Garcia